

# EAEko hirigintza proiektuek aztertu egin beharko dute hizkuntza eragina

Udal legearen garapen gisara, Eusko Jaurlaritzak hizkuntza politikari buruzko dekretu bat egiten ari da

- Udal langileen erabilera arautu nahi du gobernuak, EGA maila dutenek euskaraz lan egitea ezarrita

## Garikoitz Goikoetxea

Hirigintza proiektuak onartu aurretik, aztertu egin beharko dute nolako eragina izango duten euskararen egoeran. Eusko Jaurlaritzak dekretu bat prestatzen ari da EAEko udal legea garatzeko, eta eragin linguistikoaren ebaluazioa egiteko obligazioa txertatuko du udalen jardun eremuan. Azken urteetako ikerketek erakutsi dute zuzeneko lotura dagoela hirigintza ereduaren eta arnaguneetan izandako galeraren artean. Horri

aurre egiteko, hain justu, proiektu bakoitzaren eragina neurtuko dute, eta neurriak proposatu.

Dekretu horren bitartez zehaztuko dute zein izango den udalen jardun esparrua hizkuntza politikaren arloan; izan ere, udal legeak euskara sustatzeko eskumena eman zien. Jaurlaritzak horretarako jarraibideak emango ditu dekretuan. BERRIAK eskuratutako proposamenaren arabera, gobernuak orain arte hartu gabeko neurriak jarriko ditu mahai gainean: udal beharginen zein hizkuntzatan aritu behar duten lanean, dekretuak dio hirugarren eskaki-

zuna badutenek –EGaren maila– euskaraz jardun behar dutela.

EAJren eta EH Bilduren akordioarekin onartu zuten udal legea 2016an. Hizkuntza politikari buruzko puntu interesgarriak ditu. Besteak beste, aldaketa ekarri zuen elebitasun ereduak: «berezko hizkuntza» gisa hartu zuten euskara, eta haren «erabilera normala eta orokorra» ezarri. Euskara lehenesteko modua jarri nahi dute formulazio horrekin.

## EUSKARA LEHENESTEA

●●● *Euskara planak udaletan*  
Hizkuntza politikarako eskume-

na jaso dute udalek, eta «hizkuntza propioaren aldeko ekintza argiak» egin beharko dituzte. Euskarara lehenesteko hainbat neurri jasoko dituzte dekretuan: lehen hitza euskaraz egitea, argitalpenak eta publizitatea «gutxienez» euskaraz egitea... Alegia, modua jarriko dute erabat euskaraz egiteko, baina ez gaztelania hutsez. Izan ere, udal legearen berritasuna da hori: elebitasun simetrikoa gaitzeta, dena bi hizkuntzatan egin beharrik ez izatea.

Lehentasun irizpide horiek gorabehera, udal bakoitzaren esku geratuko da irizpideak zehaztea,

«bakoitzaren egoera soziolinguistikoa» kontuan hartuta. Aurrerabidea, bai, eskatuko diete: «gero eta gehiago» erabiltzea, eta «neurriak eta baliabideak» jartzeta. Udalek euskara plan bat eduki beharko dute.

## LANGILEAK

●●● *Eskakizuna eta erabilera*  
Berritasun handia da beharginen hizkuntza erabilerekin lotutakoa: hizkuntza gaitasuna eta erabilera lotu dituzte. Hara: «Langileek lanpostuari nahitaez esleitutako hirugarren edo laugarren hizkuntza eskakizuna egiaztatatu baldin badute, euskaraz jardungo dute, ahoz zein idatziz, toki erakunde bakoitzak onartu duen planean horri buruz ezarri-



Hirigintzak udalerrri askotan izan du eragina euskararen egoeran. Irudian, Elduain. MAIER UGARTEMENDIA / TOLOSALDEKO ATARIA

ta dagoenarekin bat etorrira». Eusko Jaurilaritza ematen ari den mezuarekin bat dator hori: euskara plan berria txertatu dute euskara derrigorrezkoa den postuetan langileak prest egon behar duela euskaraz lan egiteko, eta Miren Dobaran Hizkuntza Politikarako sailburuordeak hala esan du BERRIAN aurtzen: «Hizkuntza eskubideak bete nahi baditugu, derrigor lan egin behar da euskaraz». Ikusi beharko da nolako eragina izango duten udal bakoitzeko egoerak eta onartutako planek.

Jaurilaritza beste arau bat ere ari da prestatzen: administrazioetako ageri dira hautetsiei dagokienez: sustapen politikak. Adibidez, udalek «hautetsien ahozko eta idatzizko gaitasuna» sustatzea. Bilerak euskaraz egiteko aukera jasoko dute dekretuan, baina, horretarako, denek gutxienez ulertu egin beharko dute euskara. Berdin gertatzen da itzulpeni dagoenik: dekretuak dio «arrazio-

nalizatu» egin behar dela, eten-gabe itzulpenetara jo gabe. Muga berbera ageri da berriro, ordea: ulermen. Agiriak ez dituzte itzuli beharko baldin eta udalbatzako kide guztiak «dokumentu horiek ulertzeko euskara gaitasuna» baldin badute. Finean, hautetsien ezagutzaren arabera izango da arlo horren garapena.

#### HERRITARRAK

##### ●●● Hautua bermatzea

Dekretuaren arabera, herritarren hautua izango da hizkuntza erabiltzeko oinarria: harremanaz erabiltzeko edukia nahi duten, hori bermatu beharko dute udalek. Herritarrekiko harremanetan ere hartu beharko dituzte euskara lehenesteko neurriak –lehen hitza euskaraz egitea, adibidez–, baina haren nahira egokitu beharko dute ondoren. Hautu hori bermatzeari dagokionez, badago neurri zehatz bat: datu baseetan jasotzea herritarrek zein hizkuntzatan eduki nahi dituzten harremanak. Gogoan izatekoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak aurreko agintaldian onartu zuela neurri hori, eta oposizioko talde batzuek kontra egin zutela, «herritarrik sailkatzea» zelakoan.

#### KONTRATU PUBLIKOAK

##### ●●● Udalen obligazio berberak

Herritarren hizkuntza eskubideak bermatze aldera, udalek hizkuntza klausulak ezarri beharko dituzte kontratu publikoetan. Oinarria hau da: zerbitzu hori udalak berak emango lukeen baldintza berberetan eskaini behar du kontratatutako enpresak. Alegia, kontratu publikoak lortzen dituzten enpresek bermatu beharko dute zerbitzua herritarrek aukeratutako hizkuntzan ematea, eta, horretarako, langile euskaldunak hartu dituztela egiaztatuta beharko dute. «Hizkuntza eskakizunak behin eta berriro urratzen badira, kontratua suntsiaraztea ekar lezake». Espainiako Gobernuaren EAEko Ordezkaritzak hainbat udalen kontra jo zuen kontratu publikoetan hizkuntza irizpideak jarri zituztelako.

#### HIZKUNTZA ERAGINA

##### ●●● ELE oinarri hartuta

Azpiegitura proiektuak onartzeko, ingurumenean izango duten eragina aztertzen dute, eta kalteak arintzeko neurriak proposatzen. Aurrerantzean, gisa bereko azterketa bat egin beharko dute hizkuntzari dagokionez ere. Udal legearen berritasunik handienetakoa bat izan zen hori, eta orain ari dira prozesua zehazten. Badago oinarri bat: ELE Eragin

## Lurraldea eta Hizkuntza saioa, urriaren 10ean

**+** Eragin Linguistikoa-ren Ebaluazioa hizpide izan dute azken urteetako Lurraldea eta Hizkuntza jardunaldietan. Izatez, haren bueltan garatu zuten **ELE tresna ere, orain Jaurilaritzak oinarri gisa hartu duena. Hirigintzak arnasguneetan nolako eragina duen aztertu dute, eta prebentzio neurriak proposatu. Hori legean jasota, beste pauso bat eman nahi dute jardunaldian: Arnasguneen prebentziotik garapenera izango da aurtengo saioaren izenburua. «Lurgune euskaldunen eta arnasguneen garapen iraunkorra bermatzeko oinarriak» proposatu dituzte. Eragile hauek ari dira proiektua lantzen: Kontseilua, Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea, Gaindegia eta UEU Udako Euskal Unibertsitatea. Aurtengo saioa Azpeitian (Gipuzkoa) egingo dute, Sanagustin kulturgunean, urriaren 10ean. Izena emateko epea zabalik dago.**

Linguistikoa-ren Ebaluazioa egiteko tresna. Diseinatua dago eredu bat –Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak landu zuten–, eta hainbat lekutan probatu dute. Hori hartu du Eusko Jaurilaritzak dekreturako oinarri modura.

Era bateko eta besteko proiektuek egin beharko dute hizkuntza eraginaren azterketa: hiri antolamenduko planek, turismo planek, garraio azpiegiturek, merkataritza gune handiek, industrialdeek... «Udallerrien egoera soziolinguistikoa eragina izan dezaketen» proiektu eta plan guztiak. Sustatzaileak, proiektua egin nahi duen enpresak, aurkeztu beharko du hizkuntza eraginaren ebaluazioa, eta udalak onartu beharko dio. Neurriak ere proposatu beharko dituzte kalteak aurreikusiz gero: «Euskararen erabilerean normalizazioaren gaineko ondorio kaltegarriak prebenitzeko, zuzentzeko eta, hala dagokionean, konpentsatzeko ezarri beharko lirartekeen baldintza eta neurriak».

Orain arte, udalerri euskaldunetan egin dituzte eragin linguistikoa buruzko azterketak, arnasguneetan: asko herri txikiak dira, eta halako proiektuek eragin handia dute haiengan. Dekretuarekin, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udallerriek neurriak hartzeko aukera izango dute.

**+** **ANALISIA**  
Garkoitz Goikoetxea



## Konpondutakoak eta konpontzekoak

**U**daletan hizkuntza politika garatzeko legezko oinarria ezarriko du Eusko Jaurilaritzaren dekretuak, udal legearen garapenak. Nabarmena da udal askok urrats handiak egin dituztela urteotan, eta aurreratuta daudela hizkuntza eskubideak bermatzeari dagokionez, batez ere eremu euskaldunenetan. Horretan sartzeko aukera emango diete udal horiei, propio aitortuz hizkuntza politikarako eskumena. Atzerago doazenez bultzagarri izatea da dekretuaren eronka, egungo desoreka gainditzen joatea. Eskumenekin batera baliabideak jasoko ote dituzten udalek, garrantzizkoa da gako hori ere.

Udal legea 2016an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak, EAJren eta EH Bilduren botoekin. Gogoan izan behar da legea taxutu zuteneko egoera politikoa. Udalei eta hizkuntza politikari dagokionez, udalerri euskaldunetan arazoak izaten ari ziren Carlos Urkijoekin, Espainiako Gobernuaren EAEko ordezkariekin, helegiteak bat bestearen atzetik jartzen ari zen eta: udaleko aktak euskaraz bidaltzeagatik, kontratu publikoetan hizkuntza klausulak ezartzeagatik, euskara planak egiteagatik... Horiak guztiak bermatu zituen udal legeak, eta hala geratuko dira dekretuan. Bermea izango da alde horretatik.

**Hirigintza planen eragina neurtu beharko dute udallerrietan, baina, aldiz, Jaurilaritzak lurralde antolaketarako gidalerroetatik kendu du arnasguneei buruzko atala**

Udal legearen beste berritasun nagusia zera da, hirigintzarekin lotutako proiektuek hizkuntza eraginaren azterketa egin beharko dutela aurretik –eta ez hirigintzaokoei soilik: turismoarekin lotutakoek ere bai, esate baterako–. Urteotako ikerketek agerian jarri dute hirigintzak nolako eragin dion euskararen egoerari, batez ere arnasguneetan. Etxegintzarekin eta garraio azpiegiturekin lotuta, nabarmen aldatu da herri batzuetako biztanleria, eta, oro har, joera izan da biztanle berrien artean gehiago izatea eraldunak, edo, euskaraz jakinda ere, biztanle berriek erabiltzeko ohitura txikiagoa izatea, euskara ahulago dagoen herrietakoak izanik. Dekretuan, Jaurilaritzak oinarri gisa erabili du ELE Eragin Linguistikoa-ren Ebaluazioa egiteko tresna, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Uema Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak garatua. Arlo horretan egindako bideari egindako aitortza da.

Kontraesan bat azaleratu du, hala ere. Hirigintza planen eragina neurtu beharko dute udallerrietan, baina, aldiz, Jaurilaritzak lurralde antolaketarako gidalerroetatik kendu du arnasguneei buruzko atala. «Lurralde antolamenduetan ez du bere eremua gainditu behar hizkuntzarekin lotutako esparruetan sartzeko», erantzun zuen Jaurilaritzako Ingurumen Sailak. «Ez da erraza ikustea euskarak lurralde antolamenduetan duen inplikazioa». Ikuspegi hori eta udalentsako dekretua ez datoz inolaz ere bat.

Udal langileen jardunari lotutako puntu interesgarri bat ere badu proposamenak: hirugarren eskakizuna dutenek –EGaren parekoa– euskaraz lan egitea. Urrats interesgarria da ezagutza erabilerekin lotzeko. Aztertu beharko da nolako zailtasunak dauden udal eta eremu batzuetan. Airean zera dago: udalen dekretuan bezala, gainerako erakundeetan ere ezarriko ote duen hori Jaurilaritzak. Edo hor ere kontraesana sortuko ote den.

